

Birzikloop proiektuaren azalpena



Birzikloop proiektua eguneroko egoera batetik sortzen da: oraindik erabilgarriak diren gauzak alferrik botatzea. Helburua objektuei bigarren bizitza ematea da, ingurunea zainduz eta dirua aurreztuz. Konpontzea, berrerabiltzea eta

birziklatzea merkeagoa eta jasangarriagoa dela sustatzen du. Proiektuak mugikorrerako aplikazioa eta webgunea ditu informazioa eta zerbitzuak eskaintzeko. Horien bidez hitzorduak eskatu, zalantzak argitu eta online dendan erosketak egin daitezke. Online dendan konpondutako eta bigarren eskuko produktuak saltzen dira, Euskal Herritik kanpora ere. Birzikloop-ek zentro fisikoak ere baditu objektuak konpontzeko, trukatzeko edo berrerabiltzeko. Zentro horiek ikasteko eta komunitatea sortzeko espazioak dira. Tokiko tailer, negozio, udal eta ikastetxeekin elkarlanean aritzen da. Azken finean, Birzikloop teknologia, jasangarritasuna eta komunitatea batzen dituen proiektua da.